

DONOSTIAKO UDALA **AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

**LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO TEKNIKARI PLAZA BAT (1) OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ
BEHIN BETIKO BETETZEKO DEIALDIA**

**PROVISIÓN DEFINITIVA POR CONCURSO-OPOSICIÓN DE UNA PLAZA (1) DE TÉCNICO/A EN PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES**

Oposizio aldiko ariketa bakarra
Ejercicio único de la fase de oposición

**Udaltzaingoaren Polizia-Etxeko 1. solairua, Europa aretoa/Sala Europa (1ª planta) de la Comisaría
de la Guardia Municipal**

2025eko martxoaren 28a / 28 de marzo de 2025

GALDERAK / PREGUNTAS:

1 Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu behar da:

- A) Prebentzio-jardueraren plangintzaren bidez.
- B) Laneko arriskuen prebentziorako planaren bidez.
- C) Laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemaren bidez.

2 Arriskuen ebaluazioa eguneratu egin behar da:

- A) Lan-baldintzak aldatzen direnean eta osasunari kalte batzuk eginez gero.
- B) 4 urtean behin.
- C) Prebentzioko ordezkariak eskatu ahal izango dute, kideen gehiengoz hala erabakiz gero.

1 La prevención de riesgos laborales deberá integrarse en el sistema general de gestión de la empresa a través de:

- A) La planificación de la actividad preventiva.
- B) El plan de prevención de riesgos laborales.
- C) El sistema de gestión de la prevención de riesgos laborales.

2 La evaluación de riesgos deberá actualizarse:

- A) Cuando cambien las condiciones de trabajo y con ocasión de los daños para la salud que se hayan producido.
- B) Cada 4 años.
- C) Podrán exigirla los/as delegados/as de prevención por mayoría de sus miembros.

3 1680 langile dituen enpresa bati zenbat prebentzio ordezkari dagozkio:

- A) 4 prebentzio ordezkari.
- B) 5 prebentzio ordezkari.
- C) 6 prebentzio ordezkari.

4 Prebentzio ordezkarien eskumena da:

- A) Prebentzio-jarduerak betetzen diren zaintzea, eta lantokian izatea hura han izatea ekarri duen egoerak irauten duen bitartean.
- B) Arriskuen Ebaluazioa egitea.
- C) Lantokietara bisitak egitea, lan-baldintzak zaintzeko.

5 Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 19. artikulua araber:

- A) Enpresaburuak bermatu egin behar du langile bakoitzak prebentzio arloko prestakuntza teorikoa eta praktikoa jasotzea, prestakuntza nahikoa eta egokia.
- B) Kontratazekoan ez dago langileari prestakuntza eman beharrik. Probaldia gaindituz gero bakarrik da nahitaezkoa.
- C) Langile tituludunari ez dago prestakuntza eman beharrik, duen prestakuntza akademikoak bermatzen duelako haren jarduna.

3 A una empresa de 1680 personas empleadas cuántos/as delegados/as de prevención le corresponden:

- A) 4 delegados/as de prevención.
- B) 5 delegados/as de prevención.
- C) 6 delegados/as de prevención.

4 Es competencia de los/as delegados/as de prevención:

- A) Vigilar el cumplimiento de las actividades preventivas, debiendo permanecer en el centro de trabajo durante el tiempo en que se mantenga la situación que determine su presencia.
- B) Realizar la Evaluación de Riesgos (EVR).
- C) Realizar visitas a los lugares de trabajo para vigilar las condiciones de trabajo.

5 Según el artículo 19 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales señale la respuesta correcta:

- A) El empresario deberá garantizar que cada trabajador reciba una formación teórica y práctica, suficiente y adecuada, en materia de prevención.
- B) No es preciso formar al trabajador en el momento de su contratación. Solo es obligatorio en caso de que este supere el periodo de prueba.
- C) No es necesario formar al trabajador titulado porque su formación académica garantiza el desempeño.

6 Arriskuen Ebaluazioak haurdun edo edoskitzaroan den langilearen segurtasunerako eta osasunerako arriskua dagoela zehazten badu, enpresak hartu behar duen aurreneko neurria da:

A) Arriskuaren berri ematea langileari eta mutualitatera joan dadila hura, gaixotasun profesionalagatik Lanerako ezintasun iragankorra (LEI) eskatzera.

B) Lehen mailako arretako medikuarengana joateko eta Lanerako ezintasun iragankorra (LEI) eskatzeko jakinaraztea langileari.

C) Lan-baldintzak egokitu eta saihestea langilea arriskuaren eraginpean izatea.

7 Lantoki batek larrialdietako neurriak izan behar ditu:

A) Haren jarduera Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 1. eranskinean badago bakarrik.

B) Beti, izan daitezkeen larrialdi-egoerak aztertu ondoren.

C) Haren jarduera Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 1. eranskinean badago edo jarduera-lizentziak hala eskatzen badiu, udal-ordenantzaren arabera.

6 La primera medida que debe tomar la empresa si la Evaluación de Riesgos (EVR) determina que existe riesgo para la seguridad y salud de la trabajadora embarazada o en periodo de lactancia es:

A) Informar a la trabajadora y que acuda a la mutua para que solicite la Incapacidad laboral transitoria (ILT) por enfermedad profesional.

B) Informar a la trabajadora que acuda a su médico/a de atención primaria y solicite la Incapacidad laboral transitoria (ILT).

C) Evitar la exposición al riesgo adaptando las condiciones de trabajo.

7 Un lugar de trabajo debe disponer de medidas de emergencia:

A) Solo si su actividad es del anexo 1 del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención.

B) Siempre tras analizar las posibles situaciones de emergencia.

C) Solo si su actividad es del anexo 1 del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención, o se lo exige la licencia de actividad por ordenanzas municipales.

8 500 langile baino gehiago dituen edozein enpresak bere prebentzio-zerbitzua eratu behar du, eta espezialitate hauek izan:

- A) Segurtasuna eta higieena.
- B) Industria-segurtasuna, industria-higieena eta enpresa-medikuntza.
- C) Gutxienez bi espezialitate.

9 Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, enpresa erantzukizuna:

- A) Enpresa kontratistarena izango da.
- B) Enpresa nagusiarena izango da.
- C) Enpresa nagusiak erantzungo du, kontratistekin eta azpi-kontratistekin bat eginik edo solidarioki.

8 Cualquier empresa con más de 500 personas en plantilla debe constituir un servicio de prevención propio con las especialidades:

- A) Seguridad e Higiene.
- B) Seguridad Industrial, Higiene Industrial y Medicina de Empresa.
- C) Al menos dos especialidades.

9 Según lo indicado en el Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y sanciones en el orden social, la responsabilidad empresarial será de:

- A) La empresa contratista.
- B) La empresa principal.
- C) La empresa principal responderá solidariamente con los contratistas y subcontratistas.

10 Laneko segurtasun eta osasunerako seinaleen gutxieneko baldintzei buruzko apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren IV. eranskina aplikatuz, intentsitate edo tonu aldagarriko edo keinukariko seinale akustikoa zer adierazteko erabili behar da?

- A) Eskatutako ekintzak premia handiagoa duela.
- B) Eskatutako ekintzak premia txikiagoa duela.
- C) Alarma eta/edo ebakuazio seinale bat adierazteko.

11 Lanlekuetako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren IV. eranskinaren arabera, osagai elektronikoko txikiak eskuz muntatzen aritzen den lanlekuaren gutxieneko argiztapen-mailak, izan behar du:

- A) 500 lux.
- B) 500 lumen.
- C) 1000 lux.

10 En aplicación del anexo IV del Real Decreto 485/1997, de 14 de abril, sobre disposiciones mínimas en materia de señalización de seguridad y salud en el trabajo, una señal acústica con intensidad o tonos variables o intermitentes se utilizará para indicar:

- A) Una mayor urgencia de la acción requerida.
- B) Una menor urgencia de la acción requerida.
- C) Una señal de alarma y/o evacuación.

11 De acuerdo con el anexo IV del Real Decreto 486/1997, de 14 de abril, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud en los lugares de trabajo, el nivel mínimo de iluminación en un centro de trabajo destinado al montaje manual de componentes electrónicos de pequeño tamaño (con exigencias visuales altas) cómo ha de ser:

- A) 500 lux.
- B) 500 lúmenes.
- C) 1000 lux.

12 NTP 577 Kudeaketa prebentiboko sistema: segurtasun-berrikuspenak eta ekipoen mantentze-lanak dokumentuaren arabera, zein da erantzun zuzena segurtasun-ikuskapenei dagokienez?

- A) Lanpara ultramoreekin ikuskatzea istripua izandako lekua.
- B) Lanaren behaketek ezarritako lan-arauak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko balio dute.
- C) Prebentzio ordezkariak ezin dute parte hartu, kasua judizializa daitekeelako.

13 Langileek lan-ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren gida teknikoaren arabera, erabili daiteke lan-ekipamendu bat fabrikatzaileak aurreikusi EZ duen erabilera baterako?

- A) Bai; debekatuta ez badago eta arriskua ebaluatu ondoren erabilera horren ondorioz izan daitezkeen arriskuak ezabatu edo behar adina kontrolatzeko hartu behar diren neurriak hartuz gero.
- B) Bai; baldin eta lan-ekipoak inprobisatutako erabilera ez bada eta prebentzio-baliabide batzuk badira (Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluan xedatutako baliabideak).
- C) Ez; debekatuta daude eta fabrikatzaileak aurreikusi gabeko erabilera guztiak.

12 Según la NTP 577 Sistema de gestión preventiva: revisiones de seguridad y mantenimiento de equipos, la respuesta correcta sobre las inspecciones de seguridad es:

- A) Se inspeccionará el escenario del accidente con lámparas ultravioleta.
- B) Las observaciones del trabajo sirven para verificar el correcto cumplimiento de las normas de trabajo establecidas.
- C) No pueden participar los/as delegados/as de prevención porque es posible judicializar el caso.

13 Según la guía técnica del Real Decreto 1215/1997, de 18 de julio, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud para la utilización por los trabajadores de los equipos de trabajo, ¿es posible utilizar un equipo de trabajo para un uso NO previsto por el fabricante?

- A) Sí, siempre que no esté prohibido, se evalúe el riesgo y se adopten las medidas necesarias para eliminar o controlar suficientemente los riesgos derivados de ese uso.
- B) Sí, siempre que no sea un uso improvisado del equipo de trabajo y con la presencia de recursos preventivos según lo dispuesto en el artículo 22 bis del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención.
- C) No, porque cualquier uso no previsto por el fabricante está prohibido.

14 Langileek norbera babesteko ekipoak erabiltzeari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren arabera, aukera hauetako zein da zuzena enpresaburuaren legezko betebeharren aldetik?

A) Enpresaburuak ezarri behar du zer lanpostutan izan behar den banakako babesa, eta zehaztu, orobat, lanpostu horietako bakoitzean zer arriskuren aurrean eskaini behar den babesa, zer gorputz-atal babestu behar diren eta zer motatako ekipoa edo ekipoak erabili behar diren (norbera babesteko ekipoak).

B) Enpresaburuak langileei emango dizkie erabili behar dituzten norbera babesteko ekipoak, eta horien kostua jasanarazi ahal izango die, baldin eta langileek ez badituzte betetzen Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 29. artikuluan jasotako legezko betebeharrak.

C) Babes-ekipoak enpresan ezarritako prozedura operatiboen arabera erabiltzen direla begiratu du enpresaburuak, baina arrisku larri edo gorenekoen aurrean babesteko ekipoak bakarrik.

15 Arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenei buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren II. eranskinak tentsioa kentzeko jarraitu behar den bost etapako prozesu sekuentziala deskribatzen du. Hautatu zein den laugarren etapa:

A) Tentsiorik ez dagoela egiaztatzea.

B) Balizko edozein berrelkadura prebenitzea.

C) Lurrera eta zirkuitulaburrean jartzea.

14 Seleccione cuál de las siguientes opciones es correcta en relación a las obligaciones legales del empresario que recoge el Real Decreto 773/1997, de 30 de mayo, sobre disposiciones mínimas de seguridad y salud relativas a la utilización por los trabajadores de equipos de protección individual:

A) El empresario deberá determinar los puestos de trabajo en los que deba recurrirse a la protección individual y precisar, para cada uno de estos puestos, el riesgo o riesgos frente a los que debe ofrecerse protección, las partes del cuerpo a proteger y el tipo de equipo o equipos de protección individual que deberán utilizarse.

B) El empresario proporcionará a los trabajadores los equipos de protección individual que deben utilizar, y podrá repercutirles el coste de los mismos en caso de incumplimiento por parte de estos de sus obligaciones legales contempladas en el artículo 29 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.

C) El empresario velará porque la utilización de los equipos de protección se realice conforme a los procedimientos operativos establecidos en la empresa, pero sólo para equipos de protección frente a riesgos de carácter grave o superior.

15 En el anexo II del Real Decreto 614/2001, de 8 de junio, sobre disposiciones mínimas para la protección de la salud y seguridad de los trabajadores frente al riesgo eléctrico, se describe el proceso secuencial de cinco etapas que se seguirá para la supresión de la tensión. Seleccione cuál es la cuarta etapa:

A) Verificar la ausencia de tensión.

B) Prevenir cualquier posible realimentación.

C) Poner a tierra y en cortocircuito.

16 Adierazi aukera hauetako zein den zuzena administrazio publikoen obretako eraikuntza-obretarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera:

A) Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzu eskudunak onartu beharko du segurtasun- eta osasun-plana.

B) Ez dago laneko segurtasun- eta osasun-planik egin beharrik.

C) Obra esleitu duen administrazio publikoari helaraztea, hark onar dezan, segurtasun- eta osasun-plana eta hari dagokion txostena, obra egin bitartean segurtasun- eta osasun-koordinatzaile izan denak egina.

17 Langileen osasuna zarataren esposizio edo eraginpean izateari lotutako arriskuetatik babesteko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuaren 8. artikulua ezartzen duenez, esposizioaren muga-balioak gainditzen dituzten zarata-eraginak izatea egiaztatzen bada, enpresaburuak:

A) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari jakinarazi behar dio.

B) Zarataren eragina esposizioaren muga-balioen azpira ekartzeko hartu behar diren neurriak hartu behar ditu berehala.

C) Jarduera gelditu behar du, arriskua larria eta berehalakoa delako.

16 Marque la opción correcta en el caso de obras de las Administraciones Públicas, según lo establecido en el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción:

A) El plan de seguridad y salud deberá ser aprobado por el servicio de prevención de riesgos laborales competente.

B) No es necesario elaborar el plan de seguridad y salud en el trabajo.

C) El plan de seguridad y salud, con el correspondiente informe del coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra, se elevará para su aprobación a la Administración Pública que haya adjudicado la obra.

17 El artículo 8 del Real Decreto 286/2006, de 10 de marzo, sobre protección de la salud de los trabajadores contra los riesgos relacionados con la exposición al ruido, establece que si se comprobaran exposiciones a ruido por encima de los valores límite de exposición, el empresario deberá:

A) Informar a la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de tales circunstancias.

B) Tomar inmediatamente medidas para reducir la exposición por debajo de los valores límite de exposición.

C) Paralizar la actividad por riesgo grave e inminente.

18 "Orga jasotzaile" lanpostu batek dituen arriskuen ebaluazioa egin eta hark gorputz osora transmititutako bibrazioen eguneko esposizio-balioa $A(8) = 0,4 \text{ m/s}^2$ dela ateratzen bada, enpresak:

A) Osasuna bibrazioaren eraginpean izate aldetik espezifikoki zaintzeko betebeharra du, baldin eta eraginpean den pertsonak sentikortasun berezia duela jakinarazten badu; diskopatia, adibidez.

B) Arriskuen ebaluaziotik ateratako informazioa eta haren arabera prestatutzat eman behar die langileei.

C) Arriskuen ebaluazioa berrikusi besterik ez du egin behar, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 6. artikulua araberak.

19 Adierazi prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzeko orduan zein den lehentasun-ordena zuzena apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (374/2001 Errege Dekretua, lanean langileen osasuna eta segurtasuna agente kimikoekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzkoa):

A) Agente kimikoa ordezteak, norbera babesteko neurriak, aireztapen-sistemak.

B) Aireztapen-sistemak, lan-prozedurak sortzea eta erabiltzea, norbera babesteko neurriak.

C) Agente kimikoa ordezteak, lan-prozedurak sortzea eta erabiltzea, aireztapen-sistemak, norbera babesteko neurriak.

18 En la evaluación de riesgos de un puesto de "Carretilla elevadora" se concluye que el valor de exposición diaria a vibraciones transmitidas al cuerpo entero es $A(8)=0,4 \text{ m/s}^2$. Por lo tanto, la empresa:

A) Tiene la obligación de realizar una vigilancia específica de la salud, en relación con la exposición a vibraciones, solo si la persona expuesta comunica una especial sensibilidad como, por ejemplo, una discopatía.

B) Debe informar y formar al personal en relación al resultado de la evaluación de riesgos.

C) Solo debe realizar la revisión de la evaluación de riesgos conforme al art. 6 del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los servicios de prevención.

19 Señale el orden de prioridad correcto en la aplicación de las medidas preventivas y de protección según lo dispuesto en el Real Decreto 374/2001, de 6 de abril, sobre la protección de la salud y seguridad de los trabajadores contra los riesgos relacionados con los agentes químicos durante el trabajo:

A) Sustitución del agente químico, medidas de protección individual, sistemas de ventilación.

B) Sistemas de ventilación, concepción y utilización de procedimientos de trabajo, medidas de protección individual.

C) Sustitución del agente químico, concepción y utilización de procedimientos de trabajo, sistemas de ventilación, medidas de protección individual.

20 Adierazi eragiketa hauetako zeinetan egin behar den laneko plana martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren arabera, amiantoaren eraginpean izateko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituenaren arabera:

A) Amiantoa duten elementuak eraisteko lanak egitekoan airea zaindu eta kontrolatzekoan.

B) Mantentze-jarduera labur eta etenak egitekoan, amiantoa duen mortero proiektatuari eragiten diotenean.

C) Amiantoa duten zuntz-zementuzko plakak hondatu gabe kentzekoan.

21 664/97 Errege Dekretuak, maiatzaren 12koak, langileak lanean agente biologikoen eraginpean izateari lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoak, II. eranskinean ezarritakoaren arabera, hauetako zein agente biologiko dago 4. sailkapenarekin etiketatuta?

A) Borrelia.

B) Legionella.

C) Ebola birusa.

20 Indique en cuál de estas operaciones es necesario elaborar un Plan de Trabajo según lo indicado en el Real Decreto 396/2006, de 31 de marzo, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al amianto:

A) En la vigilancia y control del aire durante los trabajos de demolición de elementos con amianto.

B) En actividades cortas y discontinuas de mantenimiento que afectan a un mortero proyectado que contiene amianto.

C) En la retirada sin deterioro de placas de fibrocemento con amianto.

21 Según el Anexo II del Real Decreto 664/97, de 12 de mayo, sobre la protección de los trabajadores contra los riesgos relacionados con la exposición a agentes biológicos durante el trabajo, ¿qué agente biológico de los siguientes está etiquetado con la clasificación 4?

A) Borrelia.

B) Legionella.

C) Virus Ebola.

22 Lantokiko atmosfera leherkorretatik etorritako arriskuen eraginpean diren langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzko ekainaren 12ko 681/2003 Errege Dekretuaren 1. eranskinaren arabera, zer eremu-sailkapen dagokio baldintza normaletan atmosfera leherkorra sortzea probablea ez den lan-eremu bati edo, atmosfera hori sortuz gero, denbora-tarte laburretan besterik izango ez den lan-eremu bati?

A) 1. eremua; gas, lurrun edo laino moduan diren substantzia sukoiak izanez gero.

B) 2. eremua; gas, lurrun edo laino moduan diren substantzia sukoiak izanez gero.

C) 20. eremua; substantzia sukoiak airean hodei edo hauts erregai moduan izanez gero.

23 Metodo hauetatik, lan-karga mentala baloratzeko modua ematen duena da:

A) NASA-TLX metodoa (NASA Task Load Index).

B) OCRA metodoa (Occupational Repetitive Action).

C) RULA metodoa (Rapid Upper Limb Assessment).

22 ¿Qué clasificación de zona correspondería, según el Anexo I del Real Decreto 681/2003, de 12 de junio, sobre la protección de la salud y seguridad de los trabajadores expuestos a los riesgos derivados de atmósferas explosivas en el lugar de trabajo, a un área de trabajo en la que no es probable, en condiciones normales, la formación de una atmósfera explosiva o que, en caso de formarse, dicha atmósfera sólo permanece durante breves periodos de tiempo?

A) Zona 1 en el caso de tratarse de sustancias inflamables en forma de gas, vapor o niebla.

B) Zona 2 en el caso de tratarse de sustancias inflamables en forma de gas, vapor o niebla.

C) Zona 20 en el caso de tratarse de sustancias inflamables en forma de nube o polvo combustible en el aire.

23 Señálese cuál de los siguientes métodos permite valorar la carga mental de trabajo:

A) El método NASA-TLX (NASA Task Load Index).

B) El método OCRA (Occupational Repetitive Action).

C) El método RULA (Rapid Upper Limb Assessment).

24 Zeri esaten zaio "rola betetzea", rolaren argitasuna laneko faktore psikosoziala izate aldetik?

A) Eginkizunen eta erantzukizunen definizioarekin lotutako gai multzoari (zer egin behar den, nola, espero den lan-kantitatea, lanaren kalitatea, esleitutako denbora eta lanpostuaren erantzukizuna).

B) Gizabanakoak erakundeko beste kide batzuekin dituen harreman pertsonalei lotutako gai multzoari.

C) Langile batek haren organizazioan duen posizioari; hierarkiari, kide izateari, hazkunderari eta aukerei dagokienez.

25 Goiko gorputz-adarreko nahasmendu muskuloeskeletikoak agertzeari eragiten dioten faktore guztietatik, faktore biomekanikoen zer konbinazio jotzen da horiek agertzeko kausa probabletzat?

A) Jarrera estatikoak izatea, kargak eskuz manipulatzeko eta lanaldien artean atsedenik ez hartzea.

B) Mugimendu errepikakorrek egitea, kargei ondo ez heltzea haiek manipulatzekoan, lan-eritmo etena eta gaueko lana.

C) Mugimendu errepikakorrek egitea, esfortzuak indarra aplikatuz edo kargak eskuz manipulatzeko egitea eta jarrera iraunkorrek edo behartuak hartzea.

24 ¿Qué se considera “desempeño de rol” en el aspecto de la claridad de rol como factor psicosocial en el trabajo?

A) El conjunto de cuestiones relacionadas con la definición de funciones y responsabilidades, (qué debe hacerse, cómo, cantidad de trabajo esperada, calidad del trabajo, tiempo asignado y responsabilidad del puesto).

B) El conjunto de las cuestiones vinculadas a las relaciones personales del individuo con otros miembros de la organización.

C) La posición de un trabajador respecto a su organización en términos jerárquicos, de pertenencia a la misma, crecimiento y oportunidades.

25 De todos los factores que influyen en la aparición de trastornos musculoesqueléticos de extremidad superior, ¿qué combinación de factores biomecánicos se consideran los más probables como causa de su aparición?

A) Mantenimiento de posturas estáticas, manipulación manual de cargas y falta de descanso entre jornadas.

B) Realización de movimientos repetitivos, agarres inadecuados al manipular cargas, ritmo discontinuo de trabajo y trabajo nocturno.

C) Realización de movimientos repetitivos, esfuerzos realizados por aplicación de fuerza o de manipulación manual de cargas y adopción de posturas mantenidas o forzadas.

26 487/97 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, kargak eskuz maneiatzek langileentzat, batez ere haien bizkaraldearentzat eta gerrialdearentzat, ekar ditzakeen arriskuei buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa. Dekretu horren gida teknikoaren arabera, karga batek zer pisutatik gora izan dezake arriskua bizkaraldearentzat eta gerrialdearentzat, baldintza ergonomiko txarretan manipulatzeko?

- A) 3 kg.
- B) 25 kg.
- C) 15 kg.

27 LSOINen (Laneko Segurtasun eta Osasun Institutu Nazionala) gida teknikoa, Datuak bistaratzeko pantailen gainekoa, kontuan hartuta, zeregin zail eta konplexuetarako (kontzentrazioa behar duten zereginak) datuak bistaratzeko pantailak dituzten lanpostuetako soinu-maila jarraitu baliokideak EZ du gaitutuko:

- A) 55 dB.
- B) 45 dB.
- C) 35 dB.

26 Según el Real Decreto 487/97, de 14 de abril, sobre disposiciones mínimas de seguridad y salud relativas a la manipulación manual de cargas que entrañe riesgos, en particular dorsolumbares, para los trabajadores, y en el desarrollo de su guía técnica, a partir de qué peso una carga puede entrañar un potencial riesgo dorsolumbar si se manipula en condiciones ergonómicas desfavorables:

- A) 3 kg.
- B) 25 kg.
- C) 15 kg.

27 Según se establece en la guía técnica de pantallas de visualización de datos del INSST, el nivel sonoro continuo equivalente en los puestos de trabajo, con pantallas de visualización de datos, para tareas difíciles y complejas (que requieren concentración), NO deberá exceder de:

- A) 55 dB.
- B) 45 dB.
- C) 35 dB.

28 Arrisku psikosozialeko faktore hauetatik, zein EZ dator bat "lan-denbora" faktorearekin?

- A) Txandakako lana.
- B) Atsedenaldi desagokiak.
- C) Zereginari esleitutako denbora.

29 LSOINen 854 NPT-k (Nota Técnica de Prevención / Prebentzio Ohar Teknikoa) jartzen duen laneko jazarpen psikologikoen definizio tekniko eta operatiboan, elementu hauetatik zein EZ da definizio horren parte?

- A) Indarkeria psikologikoko jokabideak, behin eta berriz eta luzaroan eginak.
- B) Indarkeria psikologikoko jokabideak, baldin eta kaltea egiteko asmoa frogatuta badago.
- C) Indarkeria psikologikoko jokabideak egitea pertsona baten edo gehiagoren aurka, botere-posizio batetik (ez nahitaez hierarkikoa).

28 De los siguientes factores de riesgo psicosocial, ¿cuál NO se corresponde con el factor “tiempo de trabajo”?

- A) Trabajo a turnos.
- B) Descansos inadecuados.
- C) Tiempo asignado a la tarea.

29 En relación a la definición técnica y operativa de acoso psicológico en el trabajo (APT) contenida en la NTP 854 del INSST, señale cuál de los siguientes elementos NO forman parte de dicha definición:

- A) Conductas de violencia psicológica dirigidas de forma reiterada y prolongada en el tiempo.
- B) Conductas de violencia psicológica cuya intencionalidad de hacer daño, quede demostrada.
- C) Conductas de violencia psicológica hacia una o más personas desde una posición de poder (no necesariamente jerárquica).

30 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, EZ dira sexu-diskriminaziotzat hartuko:

A) Emakumeei eta gizonei tratamendu desberdina ematea planteatu arren, justifikazio objektibo eta arrazoizkorik ez duten neurriak.

B) Justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei berdintasunezko tratamendua ematea badakarte ere.

C) Justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu desberdina ematea badakarte ere.

30 Según el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, NO se considerarán constitutivas de discriminación por razón de sexo:

A) Las medidas que, aunque planteen un tratamiento diferente para las mujeres y hombres, no tienen una justificación objetiva y razonable.

B) Las medidas que, aunque planteen un tratamiento igualitario para las mujeres y hombres, tienen una justificación objetiva y razonable.

C) Las medidas que, aunque planteen un tratamiento diferente para las mujeres y los hombres, tienen una justificación objetiva y razonable.

ERRESERBAKO GALDERAK / PREGUNTAS DE RESERVA:

31 Langileek lan-ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren II. eranskineko 4. puntuaren arabera, aldi batean altuerako lanak egiteko lan-ekipoak erabiltzeari buruzko xedapenak aintzakotzat hartuta, esku-eskailera bat erabil daiteke lanpostu gisa, baldin eta:

A) Lan-puntua 3,5 metro baino beherago badago.

B) Arrisku-maila txikia izatea eta enpresaburuak kokalekuaren ezaugarriak aldatu ezin izatea dela-eta beste lan-ekipo seguruago batzuk erabiltzeko arrazoirik ez denerako bakarrik erabiltzen bada.

C) Debekatuta dago beti, esku-eskailerak igotzeko edo jaisteko bestetarako ez dago erabiltzerik eta.

32 LSOInen "Lanbidean agente kimikoen eraginpean izateko mugak Espainian 2021" dokumentuaren arabera, agente horien eraginpean denbora laburrean izateko mugaren denbora erreferentzia da:

A) 30 minutu, lanaldi guztian.

B) 15 minutu, lanaldi guztian.

C) 10 minutu, lanaldi guztian.

31 Según el punto 4 del anexo II del Real Decreto 1215/1997, de 18 de julio, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud para la utilización por los trabajadores de los equipos de trabajo, Disposiciones relativas a la utilización de los equipos de trabajo para la realización de trabajos temporales en altura, se puede utilizar una escalera de mano como puesto de trabajo si:

A) El punto de trabajo está a una altura inferior a 3,5 metros.

B) Se limita su uso a las circunstancias en que la utilización de otros equipos de trabajo más seguros no esté justificada por el bajo nivel de riesgo y por las características de los emplazamientos que el empresario no pueda modificar.

C) Está prohibido en todo caso porque las escaleras de mano sólo pueden utilizarse para subir o bajar.

32 Según el documento "Límites de Exposición Profesional para Agentes Químicos en España 2021" del INSST, el período de referencia para el límite de exposición de corta duración:

A) Es de 30 minutos a lo largo de la jornada laboral.

B) Es de 15 minutos a lo largo de la jornada laboral.

C) Es de 10 minutos a lo largo de la jornada laboral.

33 665/1997 Errege Dekretuak, maiatzaren 12koak, langileak lanean agente kantzerigenoen eraginpean izateari lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoak, ezartzen duenez, agente kantzerigeno edo mutageno bat teknikoki ordeztzea edo sistema itxi bat erabiltzea **EZINEZKOA** bada, enpresaburuak bermatu behar du:

- A) Langileen esposizio-maila teknikoki ahal denik eta txikiena izatea.
- B) Langileen esposizio-maila Ingurumeneko Muga Balioaren (IMB) % 20ra murriztea.
- C) Langileen esposizio-maila Ingurumeneko Muga Balioaren (IMB) % 10era murriztea.

34 Esparru hauetako zein **EZ** da esparru konfinatua?

- A) Kutxatilak eta estoldak.
- B) Goiko aldetik irekita diren deposituak.
- C) Biltegiatze-tanga, sarbiderik gabea.

33 El Real Decreto 665/1997, de 12 de mayo, sobre la protección de los trabajadores contra los riesgos relacionados con la exposición a agentes cancerígenos durante el trabajo establece que en caso de que **NO** sea técnicamente posible sustituir un agente cancerígeno o mutágeno ni utilizar un sistema cerrado, el empresario garantizará que:

- A) El nivel de exposición de los trabajadores se reduzca a un valor tan bajo como sea técnicamente posible.
- B) El nivel de exposición de los trabajadores se reduzca al 20% del Valor Límite Ambiental (VLA).
- C) El nivel de exposición de los trabajadores se reduzca al 10% del Valor Límite Ambiental (VLA).

34 ¿Cuál de estos recintos **NO** tendría la consideración de recinto confinado?

- A) Arquetas y alcantarillas.
- B) Depósitos abiertos por su parte superior.
- C) Tanque de almacenamiento sin acceso.

35 Ebidentzia zientifikoa duten ereduen arabera, zer dira faktore psikosozialak?

- A) Langileen osasunari kalte eragiteko moduko alderdi batzuk dira, lanaren diseinu eta antolaketarenak eta gizarte-ingurunearenak.
- B) Pertsona bakoitzaren izaeraren mende dauden arrisku-faktoreak dira.
- C) Langileak jasan ditzakeen lan-baldintza batzuk dira: estresa, esate baterako.

36 Jatorri psikosozialeko kalteen ikerketa aldetik, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- A) Lan-istripu edo lanbide-gaixotasun aitortutako kalteak besterik ez dira ikertuko.
- B) Gatazkak, jazarpena edo barruko beste indarkeria mota batzuk prebenitzeko eta ebazteko barne-protokoloa bete duten kasuak besterik ez dira ikertuko.
- C) Ikerketa bat egin behar da osasunaren zaintzan prebentzio-neurriak behar adina ez direlako zantzuak agertzen direnean.

35 ¿Qué son los factores psicosociales según los modelos con evidencia científica?

- A) Son aquellos aspectos del diseño y organización del trabajo y de su entorno social que pueden causar daños en la salud de trabajadores.
- B) Son factores de riesgo que dependen de la personalidad de cada persona.
- C) Son aquellas condiciones de trabajo, como el estrés, a las que el personal trabajador puede estar expuesto.

36 En cuanto a la investigación de daños de origen psicosocial, ¿cuál de las siguientes afirmaciones es correcta?

- A) Solo se investigarán los daños declarados como accidente de trabajo o enfermedad profesional.
- B) Solo se investigarán los casos que hayan seguido un protocolo interno de prevención y resolución de conflictos, acoso u otros tipos de violencia interna.
- C) Se debe realizar una investigación cuando en la vigilancia de la salud aparecen indicios de que las medidas de prevención resultan insuficientes.